


ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2024ko urriak 25 · 1330 zenbakia

ARGAZKIAK ARTELAN BIHURTUZ



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

DENA
SUKALDEAN
HASTEN DA

dica fama
SUKALDEAK SOFAK

www.urratogiinteriorismo.com • Azpeitia Arretxe 9 Eibar Arrogue 27



ARRATE HOMES • EIBAR

PISU PILOTU BERRIA



Ez imajinatu, hurbildu eta utzi harritzen



Obra berriko etxebizitzak:

Garajea | Gimnasioa | Gourmet aretoa | Trastelekua

 **Neinor** HOMES

900 11 00 22 • neinorhomes.com

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15

Tel. 943 20 24 61

www.gaurve.es

consultores@gaurve.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2

Tel. 943 20 41 94

Fax. 943 82 00 06

egurenyasociados@gmail.com

GESTILAN

Zezenbide 4

Tel. 943 20 70 02

www.gestilan.es

gestilan@gestilan.es

Hemen zure lekua

Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Udazken Salaberria, Udaz, bihar igoko da lehen aldiz bakarlari bezala eszenatoki gainera. Non eta Eibarren, bere jaioterrian, Coliseo antzokian. Gipuzkoan Gazte Tour ekimenaren barruan izango da, probintziako talentu musikal gaztea azaleratzen duen egitasmoan, hain zuzen ere hori delako Udaz.



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeke eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Datorren astean ez da alerik egongo

Domusantuko zubia dela eta, datorren astean ez duzue alerik jasoko zuen buzoietan. Hala ere, gure web orria berdin berdin jarraituko dugu elikatzen.

ORDU ALDAKETA

Asteburuko zapatutik domekarako (urriak 27) goizaldeko 03:00ak heltzean, erloju guztiak ordubete atzeratu egin beharko ditugu, 02:00etara. Beraz, ofizialki ordubete gehiago izango du asteburuko domekak. Neguko ordutegiak martxoaren 30era arte iraungo du, udakoa berriro indarrean jarri arte.



Hortik esanak



Euskal Herrian jaiotakoen %30ek dituzte egunerokoan harremanak jatorri atzerritarrekoekin, bai familian, bai lagunartean edo lanean. Orduan, ez gaude haiekin harremanetan. Hala ere, gure arteko %50ek etorkinei eskatzen diete euskara erabiltzeko, justu gure artean euskara %21ek bakarrik erabiltzen dugunean. Guk ez dugu euskara erabiltzen, eta beraiek ikastea nahi dugu, kontraesan pila bat ikusten dut hor. Aldi berean, eta harrigarria egin zait, euskara gehiago erabiltzen dutenek harreman gehiago dituzte jatorri atzerritarrekoekin.

LEIRE AMENABAR, EHUKo Psikologiako ikertaria

Sortzen dugun hautsak egiten gaitu. Askotan, kandelak pizten ditugu etxean usain ona edukitzeko. Ez gara horretaz ohartzen, baina oso kutsagarriak dira: etxe barruan zerbait erretzen ari zara, eta usain hori ere bada zenbait konposatu kimikoren emaitza, eta ez dira oso osansuntsuak. Azkenean, funtzionatzen duena gure amamak beti egiten zuena da: jaiki bezain pronto, leihoak ireki eta aireztatu etxe osoa, berriztu oxigeno guztia. Etxea garbitu behar da, baina horretarako desinfektatzaileak lepo erabiltzen badituzu, arazo handiagoa sortzen ari zara. Etxea txukundu, baina iltzez eta giltzaz ixten baduzu, ez da ezer sartuko, baina ez da ezer irtengo. Hori ez da konponbidea: amamak arrazoi, airea berriztatu!

LEIRE RUIZ, EHUKo Kimika Fisikoko irakaslea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PASADIZO → Pasa, pasabidea. “Zubixa jausi zanetik egurrezko pasadizua ipiñi dabe”. Kontua, gertaera. “Pernandoren pasadizuak daukazen liburu horri eskerrak”.

PASADIZUAN → Bidean. “Erratxu zanak erosi ei zetsezen pasadizuan zoiazen motxaillaren batzuri txerrikumeren batzuk”.

1934

Urriko Iraultza Eibarren

1934ko urriaren 5ean Espainiako Gobernuaren kontrako iraultza gertatu zen. Asturiasko meatzetan, Katalunian eta Eibarren izan zuen indar handiena. Argazkian ikusten diren bonbak Urkiko kanposantuan aurkitu zituzten 1934ko urriaren 14an. Matxinatuek ezkutatu zituzten, hilobi eta nitxoetan gordeta.



Farmaziak

BARIXAKUA 25
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 26
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 27
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ASTELEHENA 28
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 29
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 30
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
EGUENA 31
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
BARIXAKUA 1
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)

ZAPATUA 2
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 3
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 4
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
MARTITZENA 5
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUAZTENA 6
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUENA 7
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
BARIXAKUA 8
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
GAUEZ BETI , 2024an, Lekunberri (Isasi, 31)

Hildakoak

- **Gaspar Ortega Alonso**. 81 urte. 2024-10-16.
- **Juan Jose Orive Padierna**. 53 urte. 2024-10-18.
- **Fidela Narbaiza Alvarez**. 100 urte. 2024-10-19.
- **Lolita Arregi Salsamendi**. 95 urte. 2024-10-20.
- **Mercedes Aretxabaleta Ruiz de Azua**. 100 urte. 2024-10-20.
- **Mari Carmen Larrañaga Larrañaga**. 94 urte. 2024-10-20.
- **Raul Cid Casas**. 95 urte. 2024-10-20.

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20



XII. On Ekin Sariak banatu ditu Ekingunek

Eguenean banatu zituzten Ekinguneren XII. On Ekin Sariak. Edizio honetan 60 lagunetik gora elkartu ziren irabazleei sariak emateko ekitaldian, tartean Jon Iraola alkatea, Vanesa Hortas Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Berrikuntza zinegotzia eta sarien babesle nagusia den Laboral Kutxako ordezkariak. 2.000 euroko sari nagusia Goretti Abascalek eraman du, finantza pertsonalen kudeaketan eta finantza hezkuntzan oinarrituta garatu duen KUDI aplikazioarekin. Eta Herritarren Saria (1.000 euro), berriz, Nacho Pradoren *La Alegría de la Huerta*, umorezko ikuskizunaren bidez ongizatea sustatzea bilatzen duen proiektuarekin.



Arrateko Andra Marin ikasi zutenen bazkaria

80ko hamarkadan Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (EGB) Arrateko Andra Marin aldi berean ikasi zutenek bazkaria egin dute aurten ere, eta pozarren ibili ziren ikasle sasoiko kontuak gogoratzen.

Gazari buruzko hitzaldia emango du UNRWA Euskadiko ordezkariak

Eibar Palestinarekin eta Eibar-ko Gerrarik Ez elkartek hitzaldia antolatu dute eguaztenerako, 19:15ean Untzaga gizarte etxean. *Gaza. Gizatasun krisia* izenburuari jarraituta, Barbara Ruiz Balzolak (UNRWA Euskadiko ordezkaria) egingo du berba. Gaza eta Zisjordanian gertatzen ari dena ondo ezagutzen du, Palestinako errefuxiatuei laguntza humanitaria ematen ari diren erakunde handienetakoa baita berea.



Urriko Iraultzari buruzko hitzaldia gaur 18:30ean

1934ko Urriko Iraultzaren 90. urteurrenaren harira, gaurko hitzaldia antolatu du Deba Bailarako Kontseilu Sozialistak, 18:30ean Arrate Kultur Elkartean. “1934ko iraultza Euskal Herrian eta Eibarren” izenburuari jarraituko dio Jesus Gutierrez historialari eibartarrak. Kontseilu Sozialistatik adierazi dutenez, “Asturias eta Kataluniatik haratago, Euskal Herrian pisu handia hartu zuen langile matxinadak. Gipuzkoan grebak urriaren 5etik 12ra iraun bazuen ere, ‘lurraldearen kontrol fisikoa’ soilik Eibarren eta Arrasaten izan zuten iraultzaileek. Borrokek zazpi hildako utzi zituzten Eibarren, eta beste lau Arrasaten”.



Tripontziak ekimen gastronomikoaren XI. edizioa azaroan izango da

Azaroaren 8tik abenduaren 1era bitartean egingo da Tripontziak ekimen gastronomikoa Debabarrenean., Debegesak eta Debabarreneko Klub Gastronomikoak antolatuta, eta Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin. Aurkezpena aurreko astean egin zuten, Debako Santa Maria elizan. Edizio honetan Eibarko Baratze Gourmet, Elgoibar-ko Belaustegi, Ermuko Mendiola, Mutrikuko Pikua, Soraluzeko Txurruka eta Debako Kanala, Urgain eta Itsaslabarrak jatetxeek hartuko dute parte, sasoiko eta tokiko produktuetan oinarritutako menuak eskainita. Jatetxe bakoitzak berea prestatuko du, baina 35 euro kobratuko dituzte denek. Menuak barne hartzen ditu aperitibo bat, sarrera, bi plater nagusi (haragia eta arraina) eta Mendaroko txokolatearekin egindako postrea. Ogia, kafea eta ardoa ere menuan sartzen dira, eta jatetxe guztiek ardo berdina eskainiko dute menurekin:

Garcia Olano upeltegiko ardo zuria eta Araico upeltegiko ardo beltza. Bestalde, 6 euro gehiago ordainduta, txakolinaz gozatu ahal izango da. Berrikuntza gisa, menu guztien artean aukera begetarianoa egongo da. Jatetxe bakoitzaren menua debabarrenaturismo.com webgunean ikusi daiteke, eta joan aurretik nahitaezkoa da erreserba egitea, Tripontziak Menua dastatu nahi dela aipatuz.

Zozketa eta bisita gidatuak

Aurten ere menua jaten dutenen artean zozketa egingo dute, bertako produktuekin osatutako bi otar oparitzeko. Eta bisita gidatuak eskainiko dira: Mutrikuko Merkatu txikia, Mendaroko txokolate-fabrika, Dolmenen ibilbidea, Debako Santa Maria eliza, Mutrikuko herrigunea, Eibarko Armagintzaren Museoa, Lasturreko talo tailerra eta Lizagar Saragartokixa. Aurten, bisita guztiak dastaketa txiki batekin amaituko dira.

AUTUAN

1950ean EIBARREN JAIOTAKOEN 'KINTO' OSPA KIZUNA AZAROAREN 16an IZANGO DA

Aurten 74 urte bete edo beteko dituztenak, 1950ean jaiotakoak, azaroaren 16an batuko dira kintada ospatzeko. 13:00etan Untzagan elkartu, zapiak banatu eta argazki ofiziala egingo dute. Piskolabisa egingo dute Kontent tabernan, eta bazkaria, berriz, Casinon izango da. Joan nahi dutenek 90 euro sartu beharko dituzte Banco Santanderren, ES08 0049 0706 3424 1212 4445 kontuan, kontzeptuan izen-abizenak ipinita.



1962an JAIOTAKOAK UDALETXKO ARKUPEETAN ELKARTUKO DIRA BIHAR

Bihar ospatuko dute beraien "kinto" jaia urte horretan jaiotako eibartarrek, eta izena-eman duten guztientzat hitzordua 13:00etan izango dela jakinarazi nahi dute antolatzaileek. Untzagan, udaletxeko arkupeetan elkartuko dira, zapiak banatu, argazkia egin eta eguna ospatzen hasteko.

1947an JAIOTAKOEN OSPA KIZUNA AZAROAREN 7an IZANGO DA

Casinon egingo dute bazkaria, 77 urteak ospatzeko, eta joan nahi duenak 65 euro sartu beharko ditu ES36 3008 0171 6452 1919 8628 kontu korrontean, izen-abizenak argi azalduta eta kontzeptu gisa "Kintada" ipinita.



Hasi dira Esperientzia Eskolako klaseak ikasle berrientzat

Barixakuan egin zuten kurtso berria zabaltzeko ekitaldia Debabarreneko Esperientzia Eskolakoei. Ikasturte honetarako izena eman duten ikasle berriekin batera, aurreko promozioetako ikasleetako asko elkartu ziren Armeria Eskolako aretoan. Debabarreneko Esperientzia Eskolako hogeiga-

rren promozioa 21 ikaslek osatzen dute eta, lehen aldiz, izena eman duten guztiak andrazkoak dira. Kurtso honetako ikasleak Eibar, Soraluze eta Ermukoak dira, eta aste honetan hasi dituzte klaseak. Maiatzaren 22an kurtsoa amaitu bitartean, astean hiru egunetan joango dira klasera: martitzen eta

eguztenetan, 09:30etik 12:30era (Untzagako gizarte etxean); eta eguenetan, 10:00etatik 12:00etara (Armeria Eskolan). Patxi Mutiloa Ikasten elkarteko presidentek nabarmendu zuen moduan, Esperientzia Eskola martxan hasi zenetik, gizonik egongo ez den lehen kurtsoa izango da hau. Hala ere, umoreari eusten diote eta, egoera hori baliatuta, umorezko bakarrizketa egin zuen Sardo Irisarri aktore eibartarrak, eta publikoak gogotik egin zuen barre.



1974an jaiotako eibartarrek primeran ospatu zuten mende erdia bete dutela

Mende erdira ailegatu diren eibartar askok, 170 inguruk hartu zuten parte zapatuan egindako bazkarian, eta ederki pasatu zuten eguna.

Elkarte Gastronomikoetako datuak biltzeko azken egunetan sartu gara

Epa urriaren amaierarako ixtea aurreikusita bagenuen arren, azaroaren lehenengo astean ere jaso ahal izango ditugu herriko elkarte gastronomikoei eskatutako informazioa. Baina hortik aurrerakoa beranduegi izango da, orain dela 28 urte kaleratu genuen "Eibarko Elkarte Gastronomikoak" liburua gaurkotze asmoz kaleratuko dugun publikazioa lantzen hasi behar baitugu, abenduan produktua esku artean izan dezazuen.

Aldez aurretik, eskerrik asko! Batez ere, elkarteetako gehienek erakutsitako aldeko jarrera eta prestutasuna-rengatik. Askok bidali dizkiguzue dagoeneko eskatutako informazioa, eta badakigu beste askok horretan diharduzuela (konfiantza dugu horretan behintzat, elkarte guztietan laga genizuelako gure asmoaren berri ematen zizuen gutuna). Edozein zalantza izanda ere, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea eta horren berri jakinaraztea. Eskatzen zaizuen fitxa betetzeak ez du zailtasun berezirik: elkartearen izena eta nondik datorren, helbidea, sorrera-data, bazkide kopurua, kuota, egun berezia (ospakizun eguna) eta urteroko ekitaldiak.

Horrez aparte, publikazioan elkartearen logoa eta talde-argazkia txertatuko ditugu. Badirudi azken horrek sortu dituela "arazo" gehien elkartekideon artean: aspaldi ez duzuela ospakizunik egin, guztiok agertzen zareten irudirik ez duzuela... Jakizue espazio bat eskaini dizuegula horrelako argazki bat ezartzeko: izan daiteke aktualagoa, orain dela urte batzuetakoa, urteurren berezi batekoa, ospakizun baten ingurukoa, ez da beharrezkoa bazkide guztiak agertzea...

publizitatea@etakitto.eus eta 605711422

Korreo hori erabili dezakezue edo aipatutako whatsapp zenbakira deitu gure arteko komunikazioa errazteko, zuen elkartearen izena eta kontakturako telefono bat adieraziz. Gure aldetik, 1996an kaleratutako publikazioa hartu dugu abiapuntutzat, gerora sorturiko beste batzuekin batera, baina badaiteke tartean bateren batek ihes egin izana; horrelakorik bada, eskertuko genuke jakinaraztea.

Alperrak, Amaña, Asola Berri, Aterpe, Baten Bi, Batuak, Behartsuak, Bekuak, Beti Asarre, Beti Galdu, Beti Jai, Bide Alde, Bomba, Botellin, Buztarri, Centro Burgales, Dardai, Dorrepe, Edozer, Erdi Bana,



60 bat soziedade edo elkarte gastronomiko daude Eibarren.

Abenduan kaleratuko dugun publikaziorako, azaroaren lehen asterako jaso behar ditugu herriko elkarteetako informazio eta datu gutiak

Estrella, Gazte Gogor, Gure Bastarra, Gure Txokoa, Ipurua, Itur Ondo, Itxulanbru, Izar Berri, Izarra, Jai-ki, Jatorrak, Jatunak, Kamarroak, Kerizpe, La Perla, Legarre Gain, Ondo Nai, Ospelak, Otarra, Pantalla, Piztu, Rakano, Sasipe, Tariñak, Txirikil, Ume, Unzaga, Urkipe, Urkizu Gaiñ, Urko Azpi, Uso Bide, Zatarrak, Zatixa, Zazpi Gazte eta Zorionak agertzen ziren orduko hartan. Badakigu, bestalde, Lore Toki, Krabeliñ eta Txistu dagoeneko ez direla esistitzen. Eta ordutik hona Andirao, Badok, Denon Sahatsa, Galdaramiño eta Txirixo sortu direla.

Nazioarteko lankidetzaren fruituak

Jose Luis Calles eta Gladys Cruz Perutik etorri dira Eibarrera bisitan, Egoaizia Gobernuz Kanpoko Erakundearekin batera Piura izeneko eskualdean garatzen ari diren proiektuei buruzko azalpenak emateko. Badira hogeitau urte baino gehiago herri bien arteko elkarlana hasi zela, eta urte hauetan guztietan bi milioi euro inguru erabili dira Piuran baldintza latzetan bizi direnen bitzita pixka bat samurtzeko.

Kontsumo Arduratsu eta Ekologikoaren Azokako BIDEOA ikusgai



Sipca nekazariaren ikerketa-zentroko zuzendari exekutiboa da Calles, eta arlo horrekin lotutako proiektuetan eman dituzten aurrerapauso garrantzitsuak kontatu dizkigu: “Peruko iparraldean dagoen Jesusen Lagundiaren gizarte-zentro bat gara. Eibarko Udalak onartutako dirulaguntza proiektuei esker, edateko uraren sarea hobetu ahal izan dugu eta, horrekin batera, oinarrizko zerbitzuetara ailegatzeko konexioak hobetu ditugu, besteak beste”. Izan ere, bizi diren tokiaren orografiak asko zailtzen die batetik bestera mugitu ahal izatea, toki askotan errepiderik ere ez dago eta. Horrek bere isla dauka bizitzako arlo askotan, baita gizartea antolatzeko moduan ere. Han bizi direnen komunitate-sentimendua gurea baino askoz ere sendoagoa, indartsuagoa dela begibistan dago.

Horren adibide ugari daude: “Estatua iristen ez den toki asko



daude, eta gainera etxe batzuetatik beste batzuetara dagoen distantzia oso handia izaten da askotan. Hori dela eta, gure artean antolatu behar izaten gara nahitaez, edozer gauza egin nahi badugu. Adibidez, edateko uraren hornidura bermatzeko, nekazarien batzarrak eratzen ditugu. Horri esker asko hobetu da ur-zerbitzua, eta 2.500 lagun inguru izan dira horren onuradun. Proiektu guztietarako lankidetzak barruti desberdinetan bizi diren 12.000 pertsonaren bizi-kalitatea hobetu du”.

Beste zereginetako bat haurren garapenari laguntzea izan da: “Lan handia egin da haur goiztiarren artean anemia kasuak murrizteko. Gu bizi garen tokian, goizegi jaiotzen diren haurren %38k anemia dauka, baina handik kanpora bizi direnen artean askoz ere kasu gehiago daude, toki batzuetan anemia duten haur goiztiarrak %50era ailegatzen baitira”.

Lankidetzaproiektuei esker nerabezaroko haurdunaldi goiztiarrak eta haurdunaldietako gaixotasunak prebenitzeko lanean ari dira: “Gure herrialdean oso ohikoak izaten dira nerabeen haurdunaldiak, 15-19 urteko nesken %20 amak dira”.

Peruko landa-eremuetan modu autonomoan sortutako defentsarako erakunde komunalak daude, erronda izenekoak, eta Gladys-ek horietako batean hartzen du parte: “Poliziak ordezkatzaz gain,



Zapatu goizean Untzagan egin zen azokaren antolatzailetako bat Egoaizia da. Perutik etorritako bi lagunek aukera aprobetxatu eta bertan egon ziren. SILBIAHERNANDEZ

>>> Lankidetzarako laguntzei esker, edateko ur-hornidura hobetu dute, eta haurdun daudenen eta ume jai-berrien gaixotasunak murriztu dituzte, besteak beste

erronda horiek justizia administratzen dute, beti ere araudi baten barruan”. Nekazarien erronda horiei laguntzeko lanean aritu dira, baita ere. Eta tokian tokiko gobernuekin elkarlanean jorratu dituzten beste arlo batzuk garapen ekonomikoa, hezkuntzako eta soziala izan dira.

Bi hamarkadako elkarlana dela eta, oso eskertuta daudela behin eta berriz esan digute biek. Eta, aurrera begira, orain arte bezala, Egoaziaren bitartez elkarlanean jarraitzea gustatuko litzaiekeela.

“Argazkiak paperean ikustea, ukitzea eta paretan eskegita ikustea beste kontu bat da”

JUAN ANTONIO PALACIOS • Argazkilaria



Herriko argazkilaritzako lehiaketen gailurrera iritsi da Juan Antonio Palacios Indalecio Ojanguren Argazkilaritza Lehiaketaren ohorezko saria irabazita. Hainbat urtez saria eskuratzeko atarian geratu da eta azkenean bere talentuak ondo merezitako saria jaso du. Bere lana eta lehiaketan parte hartu duten beste zenbait gaurtik aurrera egongo dira ikusgai Portaleko erakusketa aretoan.

Retrato de una sardina, Naufragio eta La Patata izenburua dute Indalecio Ojanguren XXXVII. Argazki Lehiaketa irabazi duen bildumaren hiru argazkiek. Surrealismoa ardatz, Juan Antonio Palaciosen barrenetik atera zaiona islatu du argazkietan eta argazkilaritza eskaintako bizitzari ginga jarri dio.

Eibartarra izanik, zer da zuretzat Indalecio Ojanguren lehiaketan sari nagusia jasotzea?

Demaseko poza eman dit, ilusio handia. Indalecio Ojanguren lehiaketak 37 edizio egin ditu eta estatu mailan oso garrantzitsua da. Gainera, oraindik paperean egiten den lehiaketa apurretakoa da, gehienak digitaletan egiten direlako. Argazkiek argazki izateko paperean egon behar dutela pentsatzen dut. Pantailan ikusi ditzakezu, baina paperean ikustea, ukitzea eta paretan eskegita ikustea beste kontu bat da. Argazkia amaituta ikustea da. Argazki digitalak amaitu gabeko argazkiak dira, kakotx artean noski. **Lehiaketarako argazkiak digitaletan edo paperean aurkeztu behar izateak baldintzatu egiten zaitu?**

Pertzepzioa aldatu egiten da. Digitalak arazo bat du: zuk argazkia pantaila batean ikusten duzu, baina gero beste pantaila batean proiektatzen dute eta horrek ez du zurearekin zerikusirik. Hau da, koloreak ez dira guttiz berdinak, ezta zuri-beltzeko tonuak ere... Paperean, ostera, argazkiak zuk zeuk inprimatzen dituzu eta zure esku dago azken emaitza. Hori bai, lehiaketa digitaletan parte hartzea erosoagoa da eta baita merkeagoa ere. Argazkilaritza inoiz ez da merkea izan.

Indalecio Ojanguren lehiaketako saria hiru argazkiko bildumarekin irabazi duzu...

Bai, kolorezko hiru argazki dira.

Kolorezkoak dira, baina ez dute kolore askorik.

Hori da. Kolorearekin jolastu dut pixka bat. Izan ere, konturatu naiz normalean argazki lehiaketetan zuri-beltza koloreari gailentzen zaiola, artistikoagoa dirudielako. Orduan, argazki hauetan koloreak nahikoa desaturatu ditut.

Nola sortu zitzaizun argazki hauek egiteko ideia eta nolako prozesua jarraitu duzu?

Aurretik eginda nituen argazkietatik abiatuz muntaia surrealistikak egin ditut. Adibidez, eskegita da-



Ez da arraroa Juan Antonio Palacios argazki-kamera eskuan duela ikustea. EKHI BELAR

goen sardina bat, bihotz baten itxura duen patata bat elektrokardiograma batekin, itsasoaren itxura duen zoruaren irudia eta handik arrain bat irteten paperezko itsasontziaren alboan... Argazkiak edukita ideiak sortzen zaizkit.

Inprobisatu egiten duzu?

Hori da! Argazki-mota hauetan nahikoa inprobisatzen dut. Adibidez, patatak bihotz forma zuen eta elektrokardiograma bat jarri nion alboan, patata bityzaren amaieran balego bezala.

Ez dira ohiko argazkiak, ez.

Ez, arriskatzen saiatu naiz. Bestalde, lehiaketara beste bilduma bat aurkeztu nuen, zuri-beltzean, eta biak iritsi ziren finalera. Epaimahaiaren erabakia zuzenean jarraitu nuen eta interesgarria izan zen bi bildumen inguruan nola eztabaidatzen zuten ikustea. Eztabaida luzea eta interesgarria izan zuten epaia eman aurretik. Beno, gutxienez banekien saria jaso-ko nuela, biak zirelako nireak.

Nolakoa da beste bilduma?

Klasikoagoa. Sitrama de Teran, Zamorako herritxo batean, neguan egindako argazkiak dira. Bertatik

“Argi ona badago, konposaketa ona bada eta arrazoia interesgarria bada, ez duzu demaseko kamera behar argazki ona egiteko”

pasatzen den Tera ibaian eginda daude, ibai ederra, laino artean eta ihintz garoarekin. Argazki horiek orain dela pare bat urte egindako erakusketa bateko bildumaren parte dira.

Beraz, ez zara argazki-mota jakin bat egitera mugatzen.

Gauza ezberdinak egitea eta ikertzea gustatzen zait. Adibidez, izoztutako loreen argazkiekin nabil orain gora eta behera. Etxeko hozkailuan izozten ditut eta loreek izotzarekin hartzen dituzten testurak oso interesgarriak iruditzen zaizkit. Gauza politak irteten dira.

Arlo teknikoari dagokionez ere, gauza ezberdinak egitea gustatzen zaizu?

Bai. Ez dakit, adibidez, esposizio bikoitza egitea. Argazkilaritzan hasi nintzenean laborategia muntatu nuen etxean, lan egiteko oso eroso, eta hainbat urtez aritu nintzen horrela, lan kontuengatik eta denbora faltagatik diapositibekin hasi nintzen arte. Erosoa- goa zen. Gero, bideoan ere gauza asko egin nituen: bidaien dokumentalak, gimnasia erritmikoko saioak (alaba zebilelako)... Handik fotogramak atera, landu eta gauza itxurosoak egiten nituen.

Hori guztia zure kabuz egiten ikasi duzu?

Bai. Tailerretan egon naiz, baina ordurako banuen nolabaiteko jakintza. Beti hartzen duzu ideia bat, baina gauza solteak. Hori bai, beste autore batzuen argazkiak asko ikusi izan ditut, museoetan asko egon naiz... Irudia beti interesatu zait, edozein modutan: marrazkiak, argazkiak, margolanak... Margolaritzaren maisu handien erreferentziak edukitzea oso garrantzitsua da argazkiak egiteko (argia, konposaketak...).

Erreferente jakinik izan duzu?


Ez, ez dit argazkilari jakin batek markatu. Ansel Adams paisajista eta beste batzuk gustatu izan zaizkit, baina ezin da esan gehiegi markatu nautenik. Denetarik gustatu izan zait: erretratoak, arkitektura, paisaiak, makroak...

Hasi zinenetik teknologia asko garatu da. Nola bizi izan dituzu aldaketak?

18 urte ingururekin erosi nuen lehen argazki-kamera, Andorran. Errusiarra zen, Fenix markakoa. Demaseko pisua zuen, baina reflex kamera zen, 35 mm-ko objektiboarekin. Merkea zen Canon edo Nikon kame- rekin alderatuz gero. Horrekin hasi nintzen eta, diru gehiago nuenean, Canon A-1 kamera eta objektibo batzuk erosi nituen. Gero, digitalera jauzia egitea ez zitzaidan batere kostatu. Megapixel bakarreko Canon bat erosi nuen eta bitxia da, baina kamera horrekin egindako A3 tamainako argazkiak ditut eta ez zenuke esango megapixel bakarra dutenik.

Argazki-kamerak zenbateko garrantzia du argazki on bat egiteko orduan?

Ekipo ona edukitzea garrantzitsua da, baina garrantzitsuena zer egin nahi duzun ondo jakitea da, lokalizazioak ondo aukeratzea, baita argia ere, eta estetikari garrantzi berezia ematen diot; hau da, konposaketari, esposizioari, koloreen harmoniari... Argi ona bada- go, konposaketa ona bada eta arrazoia interesgarria



bada, ez duzu demaseko kamera behar argazki ona egiteko. Telefono mugikorrarekin egindako argazki zoragarriak daude.

Urte hauetan zure lanetan eboluzioa egon dela ikusi duzu?

Bai, noski. Gero eta gehiago eskatzen diozu zure buruari, interesatzen ez zaizkizun gauzak baztertzen dituzu eta gustatzen zaizkizunei eusten diezu... Argazkian gehiago pentsatzen dut. Argazki asko egin beharrean, ondo pentsatu eta agian bakarrarekin nahikoa dut.



BAZKIDE zertarako?

Haur eta gaztetxoan artean euskararen erabilera sustatzeko



Txikitto!

Eibarko Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak eskolan bertan jasotzen duten hilabetekaria. Irakurketa eta idazketa-trebetasunak lantzeko aldizkaria izateaz gain, ikastetxe-guraso-ikasle/semi-alaben arteko harremanak euskaraz izateko eta ondo pasatzeko aukera ematen digun euskarria ere bada. Ikasle, irakasle eta gurasoen arteko elkarlanean oinarrituta dago.

zarelako **g**ara

Egin zaitez bazkide!

“Euskalduna izanik, ez nuen inolako zalantzarik izan gidabaimena euskaraz ateratzeko”

Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Autoeskolen Federakuntzak abian jarri duten “Gidabaimenak euskaraz!” ekimenaren bitartez, zozketa bidezko erosketa-bonoak emango ditu Eibarren Akebaik herriko gazteek gidabaimena euskaraz gainditzeko egiten duten ahalegina saritzeko. Zozketa hori gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gainditu eta eskaera aurkezten duten guztien artean egingo da eta hiru sari egongo dira: 250 euroko erosketa-bonoa, 100 eurokoa eta 50 eurokoa. Horretarako Eibar Merkataritza Gune Irekiaren laguntza izan du Eibarren Akebaik. Abenduaren 31ra arte egin daiteke eskaera.

Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko Autoeskolen Federazioarekin koordinatuta, *Gidabaimena euskaraz* proiektua jarri du martxan interesatu guztiei euskarazko material gaurkotua eskaintzeko. Horrela, ziklotorreko eta kotxeko gidabaimena euskaraz eskuratzeko aukera dago Euskal Herriko 160 autoeskolatan. Autoeskola horietan ikasleei euskarazko eskuliburuak eta online bidezko euskarriak ematen zaizkie. Material horiek Euskadiko Autoeskolen Federakuntzak prestatu ditu Eusko Jaurlaritzaren babesarekin hizkuntza-eskubideak arlo horretan ere bermatzeko, hau da, nork bere hizkuntzan ikasi ahal izateko.

Irati Zarrua, lehen eibartarra

Badira urte batzuk zenbait autoeskolatan gidabaimena euskaraz atera daitekeela, esate baterako, Eibarko Solozabal autoeskolan, eta oraingoan ere Solozabalekoek bat egin dute *Gidabaimena euskaraz* proiektuarekin. Irati Zarrua 17 urteko gaztea izan da lehen eibartarra



gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzen egitasmoa martxan jarri zenetik. Iratik motozikletaren A2 baimena atera du, eta orain autoaren gidabaimena lortzeko atal teorikoa ari da prestatzen.

Autoeskolara hurbildu zenean, Iratik ez zuen inolako zalantzarik izan hizkuntzari buruz: "Nire etxean beti euskaraz egiten dugu berba, eta ikasketak ere euskaraz egin izan ditut. Beraz, autoeskolara joan nintzenean ziurtzat ema-



Irati Zarraua 17 urteko gaztea izan da lehen eibartarra gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzen egitasmoa martxan jarri zenetik.

ten nuen euskaraz egiteko aukera zegoela. Euskal Herrian gaudenez, normala iruditzen zitzaidan. Autoeskolan euskarazko eta gaztele-razko liburuak erakutsi zizkidaten, eta hor desberdintasun bat ikusi nuen, egia esan. Erdarazkoak kapi- tulu bakoitzaren amaieran test bat zeukan, eta euskarazkoak ez. Hala ere, liburua nahiko ondo dago".

Izan ere, Euskadiko Autoeskolen Federazioak Eusko Jaurlaritzaren babesarekin abiatutako *Gidabai- mena Euskarazek* Gidabaimenak euskaraz prestatu eta egin ahal izateko bermea ematen dio ikasleari, eskuliburu teorikoetatik hasi eta azterketa egiteraino. Gidabaimenen zati teorikoa euskaraz arrakastaz gainditzeko beharrezko baliabideak jartzen ditu ikaslearen eskura: eskuliburuak, paperean nahiz online, ikus-entzunezko pilulak, testak...

Iratik pare bat hilabete eman ditu azterketa prestatzen, eta gainditu egin du. Halare, gaztelerarekin alderatuta, Internet bidezko euskarri-ri dagokienez, euskaraz zenbait gauza faltan bota dituela esan digu.

"Adibidez, egin ohi dituzun hutse- giteekin, hau da, akumulatzen di- tuzun akatsekin eta berez zailtasun berezia daukaten galderekin ere probak egin daitezke gazteleraz. Eta euskaraz oraindik ez".

Zenbat eta jende gehiago orduan eta hobeto

Hala ere, horrelako gauzak hobet- zeko modua zein den argi dauka Iratik: "Zenbat eta jende gehiago animatu euskaraz egitera, orduan eta aukera gehiago izango dugu ba- liabide hobek eskuratzeko. Azter- keta egitera Azpeitira joan nintze- nean bi pertsona bakarrik geunden euskarazkoa egiten. Zoritxarrez, oraindik jende gutxi egiten du azterketa euskaraz. Nire inguru- koek ere gazteleraz ateratzen dute eta horrek asko harritzen nau. Bi- zitz osoa zure heziketa euskaraz izan denean, ez zara gauza orain azterketa bat euskaraz egiteko?".

Bestalde, jendea animatzeko mo- durik eraginkorrena erakundeeta- tik dirulaguntza zuzenak ematea litzatekeela uste du Iratik.

"Zoritxarrez oraindik jende gutxi egiten du azterketa euskaraz"

Erosketa- bonoen zozketa gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gainditu eta eskaera aurkezten duten guztien artean egingo du Akebaik



**Indar
kontutan
parez
pare**



KARMELE GISASOLA HERRI KIROLARIA ETA XABI OSA ATLETA EGOKITUA

Mallabiko Zelai landetxean batu ditugu Karmele Gisasola Zenikazelaia eta Xabi Osa Mendes herri-kirolez eta crossfitaz berba egiteko. Ez zuten hasiera errazik izan biek bietara ere, baina biek ezagutu dute loria nork berean, eta gaur erreferente dira askorentzat.

Testua: Ainara Argoitia

Argazkiak: Asier Orbea

Elkarrizketa osoaren bideoa ikusgai eskualdeko tokiko komunikabideen webguneetan

ARGITARATZAILEAK

ek!

Eibarko ...eta kितto!
Euskara Elkarteko
hedabidea

dkt

Debarreneko
Komunikazio
Taldea

Euria ari du goian behean Mallabian, eta zelaitarrek etxe ondoan duten harritik babestu gara solaserako. Metro koadro gutxiko espazioan dozenaka harri daude ertzetan pilotuta, eta hiruzpalau txaleko zintzilik. Lanerako tokia da. Bi leiho luzexkek zelaira ematen dute, eta etxeko behiak ikus daitezke larrean, hausnarrean. Barruan bestelako hausnarra darabilte gure bi protagonistek, parez pare jarrita.

Emakumea izateagatik edo gorputz normatiboa ez izateagatik, ezberdinak zineten askoren begietara plazan agertu zinetenean. Nola oroitzen dituzue hasiera haiek?

Karmele G.: Beti kontatzen dut aitak hogeitau urte egin zituela plazarik plaza eta ez zuela emakume batekin partekatu plazarik, urte askotan ehun erakustalditik gora egin zituen arren. Hori oso gogorra da. Esan beharra daukat Miren Urkiola hasita zegoela harri-jasotzen, baina entzuten ziren komentarioak ere ez ziren beti onak. Ezohiko zerbait zen emakume bat ikustea indar kontutan. Gure etxean, neba eta lehengusua hiruzpalau bat urterekin hasi ziren plazan aizkoran eta harri-jasotzen, baina nik 17 urterekin egin nuen saltoa, lehengusinarekin. Aitak animatu gintuen trontzan hastera. Ordura arte beti izan nintzen traketsa kirolerako; beti izan nituen behar baino kilo gehiago. Gimnasia beti nintzen azkena gelditzen zena eta urte askoan pentsatu nuen ez nuela kirolerako balio, harik eta gustukoa topatu nuen arte.

Xabi O.: Gustuko duguna topatu eta orduak sartu behar dira; eta ez nabarmentzeko, baizik eta erakusteko geure buruei gai garela eta lortu dezakegula nahi duguna. Begira, ni hondoa jota eta gauza oso negatiboetan pentsatzen nengoan ispilu aurrean jarri eta buruak klik egin zidanean. 'Edo aldatzen duzu zerbait edo batek daki zer gertatu daitekeen hemen', pentsatu nuen. Askok sufritu nuen umetan. Lotsa sentitzen nuen nire gorputzaz eta ez nuen nahi izaten kalera irteterik, ez neukalako besteen begiradei aurre egiteko gogorik. Irain asko egiten zizkidaten eta beti saiatzen nintzen besoa ezkutatzeko. Zorionez esan dezaket lagunek eta etxekoek asko lagundu nindutela. Lagunek sekula ez zidaten galdetu ea bizikletan ibili nintekeen. 'Xabi, goazen bizikletan ibiltzera', esaten zidaten, baina askotan komentario negatiboak eragin



handiagoa izaten dute. Egoera horretan neure bertsiorik onena zein izango zen imajinatzen hasi nintzen, eta Xabi indartsu batekin amets egin nuen, fisikoa zelako besteek ni baztertzeko arrazoia. Garai zailak izan ziren. Ohitura txarrak hartuta neuzkan. Jan ere edozer egiten nuen lokalera jaisten nintzenean, baina ispilu aurrean jarri nintzen gau hartan bertan entsalada afaldu nuen eta hurrengo egunean korrika egitera irten nintzen. Hor hasi zen aldaketa, eta kirolak erakutsi zidan gauza batzuk egiteko zailagoa izan nezakeen arren, nire gorputza ez zela oztopo ezertarako. Gero, Ameriketako Estatu Batuetara joan eta kirolarekin obsesionatzera ere iritsi nintzen. Eta jabetu nintzen nire buruarekiko neukan ikuspuntua ez zela aldatu. Erabaki nuen ez nintzela entrenatuko gorputz jakin bat izateko, baizik eta indartsu sentitzeko. Strongman egiten hasi nintzen [herri kirolen bertsio amerikarra] eta esango nuke hainbeste jende ezberdin ikustek engantxatu egin ninduela.



"Xabi indartsu batekin amets egin nuen, fisikoa zelako besteek ni baztertzeko arrazoia"

"Kirolak erakutsi zidan gauza batzuk egiteko zailagoa izan nezakeela, baina nire gorputza ez zela oztopo ezertarako"

"AEBetara joan eta kirolarekin obsesionatzera ere iritsi nintzen, eta jabetu nintzen nire buruarekiko neukan ikuspuntua ez zela aldatu"

XABI OSA

Adinez zaharragoa izan arren, etxeko mutilak baino dezentez geroago hasi zinen plazan eta etxekoek zerabilten ezizena hartu barik. Denontzat da desiragarri norbere izen-abizenez deitzea, baina zuenean Zelai goitizenak bazuen entzute bat. Kontzienteki baztertu zenuen?

K.G.: Ez. Lehen, euskaldunek normalean baserri izena hartzen zuten ezizentzat. Gurean, aitak, bi anaietan zaharrenak, Zelai hartu zuen; osabak, Zelai II.a; lehengusu loritzek Zelai III.a, eta gure nebak, Zelai IV.a. Akordatzen naiz Ermuko Santixau jaietan denok irten ginela plazara. Aurkeztu zituen esatariak gure etxeko gizonezkoak izen-abizenez eta Zelai ezizenez, gauza bera egin zuen gero Bihurri aita-seeekin, eta nire txanda iritsita, esan zuen: 'Eta Iparraldeko jokoetan, Karmele Gisasola'. Ni ez nintzen ohartu ere egin; hala zen. Bukatu zen erakustaldia eta etorri zitzaidan aurkezlea esanez pena hartu zuela etxeko guztiak Zelaitartzat aurkeztuta eta ni izen-abizenez. Lasai egoteko erantzun nion, ni jolasean ari nintzela-eta. Baina iritsi zen eguna nire nebak eta lehengusuak baino erakustaldi gehiago egiten nituela, txapelketa gehiago jokatzeko nituela eta orduan esan nien etxeko mutilei aldatu egin behar genuela. Dena den, herri-kiroletan esango nuke ez dagoela ezizena duen beste emakumerik.

Nola hasi zineten crossfiten?

X.O.: Ameriketara ezagutu nuen crossfita, baina han oso garestia zen, eta Euskal Herrira itzuli eta gerora hasi nintzen. Hona etorri nintzenean strongman egiten jarraitu nuen hasieran, baina ez nuen topatzen leku aproposik stronggeko ariketak egiteko crossfiten eman nuen izena.

K.G.: Akordatzen naiz Xabik [Osa] 2019an Anboto Crossfit zabaldu zuenean, ikusten nituela ikaskide izandako batzuk crossfitera joaten eta erabaki nuen izena ematea, harri-jasotzen aitarekin ibili arren, ez neukalako maisurik esateko sentadillak eta bestelakoak zelako egin behar zirenen zuzen. Harria jasotzen ikusten dugunean norbait pentsatzen dugu indar handia izan behar duela derrigor, baina hemen dena ez da indarra. Da indarra, da teknika, da gure nortasuna eta da hauspoa. Harriak ere ezberdinak dira, eta harria jasotzeko moduak ere bai. Niri oso lagungarria egin zitzaidan crossfita, indarra egiteko. Jendeak uste du oso kaltegarria dela, baina gezurra da. Lesionatu izan banaiz, ez da

crossfitagatik izan; baizik eta, batzuetan, kontrakoagatik, ez joateagatik.

Harri-jasotzaileen etxean nola hartu zuten crossfiten izena ematea?

K.G.: Hasieran ez nion ezer esan aitari. Probatzera joan nintzen. Mugikortasun handirik ez neukan eta gaur baino hamar kilo gehiago nintzen. 'Nora ostia etorri naiz!', pentsatzen nuen. Uste dut box batera sartzen garen guztiok lehenengo sentitzen duguna lotsa dela. Izerditan hasten nintzen ezertan hasi orduko, baina probatu nuen eta asko gustatu zitzaidan. Kezkatzen ninduen etxean nola esan. Izan ere, gure aitaren buruan sentadillak, pisu hilak eta karga hartzeak egitea zen entrenatzea, eta etxean bageneukan material guztia. Eta etxean entrenatzen ari ginen egun batean, aitak, harrituta moduan, bota zidan: 'Ene, indarra egin duzu!'. Orduantxe esan nion crossfiten hasi nintzela. Crossfita oso lagungarria izan zitzaidan bereziki pentatloia prestatzeko. Harri-jasotzen, gaur, ez dira sasoi bateko hamar minutuko txandak-eta egiten. Oso lan motzak izaten dira, baina pentatloian harri-jasotzen, txingetan, aizkoran eta korrika egin behar genuen eta lan luzeago baterako prestatzeko eta arnasa egiteko oso ondo etorri zitzaidan crossfit egitea.

Gorputz normatiboak, kanon estetikoak... Erakartzen du crossfitak gero eta jende gehiago, baina errezero batzuk sortu ere bai beste askorengan.

X.O.: Gertatu zait herri-kiroletan eta baita crossfiten ere. Etorri izan zaizkit emakumeak boxera, eta esan: nik ez dut gorputz gihartsu horiek izaterik nahi.

K.G.: Akordatzen naiz gimnasioan halterofilia egiten ari ginen batean nola esan zenigun lasai egoteko, barra bat jasotzearen ez ginela koadratuak jarriko-eta. Astean bi aldiz joanda ezinezkoa zela hori, baina indar ariketak egitea oso lagungarria izango zitzaigula gure eguneroko lanetarako. Beste hori ere bada. Niri gustatzen zaizkit emakume gorputz gihartsuak ere, baina jende askori oraindik zatarrak iruditzen zaizkio. Eta ulertu dezaket jende bati ez gustatzea, baina ulertu dezatela haiek beste batzuei gustatzen zaizkigula eta gainera ez dela ezer txarra.

X.O.: Bai, jakina. Ohartu behar gara gorputzen inguruko komentarioek min egin dezaketela. Dena



den, komentario horiek askotan etxekeengandik etortzen dira, amengandik-eta, lehen ez zirelako halako emakume gorputzak ikusten. Iruditzen zait asko ari garela aurreratzen, gero eta neska gehiagok uste dutelako gorputz indartsua izatea osasungarria dela eta gainera erakargarri ere izan daitekeela. Crossfiten egiten ditugun ariketek eguneroko mugimenduetarako prestatzen dute gorputza. Sentadilla bat eseri eta altxatzea da bizitzan. Pisu hila jasotzea erosketak poltsak altxatzean egiten dugun mugimendua da, eta nik neuk behintzat hilkutxan sartzen nauten eguneraino nahi nuke erosketak jasotzeko gai izatea. Nire ustez crossfita izan behar da zerbait jendeari lagunduko diona. Ikusten dudana da, baina, jende asko gehiegi obsesionatzen dela.

K.G.: Esan eta esan ari zaizkigu, batez ere emakumeok indarra landu beharko genukeela menopausia aurreko urteetan. Egia da, baina, ni neu ere ez nagoela ohituta 50 urteko emakumeak gimnasia joaten ikusten. Baina indarra landuta osasuntsuago eta hobeto sentituko gara eta ariketa fisikoa taldean egiteak buruko karga arintzen ere lagunduko digu. Akordatzen naiz beste entrenatzaile batek ere nola esan zidan behin ariketa eszentrikoak eta gomekin egiten ziren ariketak txorradak zirela, baina ez da egia. Gauza asko landu daitezke eta edozeinek egin ditzake ariketa horiek.



Txapelketetan gero eta emakume gehiago ikusten dira, batean zein bestean.

X.O.: Bai, eta bai herri-kiroletan eta bai crossfiten ere nik gehiago gozatzen dut emakumeak ikusten pisua altxatzen gizonak ikusten baino. Iruditzen zait aukerak falta izan dituztela, baina aukera eman zaienean erakusten ari direla oso gai direla indar kirolak egiteko.

K.G.: Bai, niretzako oso polita da, urte luzez ikusi bakoa izan delako eta erakutsi dugulako ikuskizun politak eskaini ditzakegula. Harri-jasotzen, emakumezkoetan, markarik handiena Idoia Etxeberriak dauka. Bi eskurekin 163 kiloko harria dauka altxatuta, eta esku bakarrarekin 118koa. 16 urterekin, Idoiak, 120 kiloko errektangularra jaso zuen. Iaz, Olaia Esnaolak, 16 urterekin, 125 kilokoa jaso zuen, eta aurten, Maddi Gesalagak berdindu egin du marka, baina 15 urterekin. Ni horrek izugarri pozten nau.

"Nora ostia etorri naiz!'," pentsatzen nuen. Uste dut box batera sartzen garen guztiok lehenengo sentitzen duguna lotsa dela. Izerditan hasten nintzen ezertan hasi orduko, baina probatu nuen eta asko gustatu zitzaidan"

"Ulertu dezaket jende bati ez gustatzea emakume gorputz gihartsuak, baina ulertu dezatela haiek beste batzuoik gustatzen zaizkigula eta gainera ez dela ezer txarra"

KARMELE GISASOLA

Nola entrenatzen zarete?

K.G.: Gure aita, bere sasoiaren, astean hiru bat aldiz Oizera igotzen zen etxetik hauspoa egitera, eta beste hiru bat aldiz Iruñeko gimnasio batera joaten zen urtarriletik martxora, indarra egiteko. Lurrean amaitzen zuela esaten du. Gertatzen dena da guk herri-kiroletan ez daukagula egutegirik. Nik urtarrilaren 1ean ez dut jakitzen zenbat txapelketa izango diren, gonbidatuko ote nauten, noiz izango diren eta ezer ez, eta beraz, ez dakit noiz egon behar naizen indarraldi betean denboraldian zehar. Eta denok dakigu ezin dela urte guztian egon sasoirik onenean.

X.O.: Horrek asko zailtzen du, bai. Kirolean, txapelketa asko izateak interferentziak sortzen ditu entrenamenduan. Niri lehiatzea ez zait asko gustatzen; gehiago gustatzen zait entrenatzea, nire buruaren kontra egitea... Urtean bi txapelketa jokatzen ditut. Irailtik martxora arte karga lantzen dut, zure aitak egiten zuena. Astean sei egunez entrenatzen naiz, lauzpabost ordu egunean. Gogorra da, eta jakina, iristen da larunbata eta ez dut beste ezertarako gogorik izaten. Sakrifizio handia eskatzen du, bai gurea, kirolariona, eta baita ingurukoena ere, haiek ere ordaindu behar izaten dutelako, entrenatzen ez gauden denbora deskantsurako behar dugulako eta bete behar dugulako hori, ahal izanez gero jakina.

"Hori da ulertu behar duguna: irabaztea ez dagoela beti gure esku, beste baldintza batzuk ere sartzen direlako jokoan. Besteak ere hor daude, gainera, eta norberak dena emanda ere izan daitezke gehiago"

KARMELE GISASOLA



Niri gertatzen zaidana da kirolari profesionala izan arren lan egin behar dudala bizitzeko, hemen babeslerik ezean ez dagoelako dirurik.

K.G.: Bai, ni ere berdin; biok dauzkagu gure negozioak, gure kirolek ezin delako bizi. Udan oso txarto egon naiz ni gerritik; ez nekien zer zen. Fisioterapeutarenera joaten nintzen, ipintzen ninduen ondo, baina entrenatzen hasi eta negarrez amaitzen nuen, minez. Inori ez dizkiot opa udan pasatu ditudan minak. Askotan gelditu naiz plazan ere azkeneko harria jaso ezinda, minaren minez, negarrez. Erakustaldia amaitu domeka iluntzez, deitu osteopataria urgentziaz zaindu nazan, hasi berriro, eta ezin. Hala, banan-banan deitu behar izan nien antolatzaile guztiei udako bi hilabeteetarako lotuta neuzkan erakustaldi guztietarako ezetza eman eta ordezkoak topatzeko.

Eta halakoetan nondik ateratzen da entrenatzeko indarra?

K.G.: Hemen, harritikian, aita eta neu egoten gara bakarrik eta askotan motibazioa falta izaten zait entrenatzen hasteko. Eguraldi txarra egiten duenean, hilekoarekin nagoenean... dena txarra ikusten dudana egunetan oso gogorra egiten zait bakarrik aritzea. Baina talde baten izena ematen duzunean, burua behartuta sentitzen duzu joatera, aktibatzen zaituzte eta ingurukoek asko laguntzen dizute. Hori dauka crossfitak honek ez daukana, edo nik hemen ez daukadana, badirelako herri-kiroletan beste batzuk taldean entrenatzen direnak. Ni harritikian lehiatu egiten naiz eta ez nintzateke

kapaz beste lehiakide batekin batera entrenatzeko, joango nintzatekeelako nire onena ematera barik bera gainditzera. Ikasketa prozesu bat da hori ere, eta ikasi egin beharko nuke.

X.O.: Kirolari profesional bat naiz, mundu mailan lehiatzen dena, eta entrenatzaileak jartzen didan dena egin behar izaten dut Atik Zra.

Nola daramazue presioaren kontua?

X.O.: Txapelketetan hasi nintzenean irabaztea besterik ez neukan buruan eta ikaragarri zaintzen eta prestatzen nintzen, baina iristen zen eguna eta erlojuan atzera kontaketa hasten zenean blokeatu egiten nintzen. Antsietateak hartzen ninduen, ahoa sikatzen zitzaidan eta ezin izaten nintzen zentratu egin beharreko mugimenduetan. Eta horregatik hasi nintzen kirol psikologo batenera joaten. Iruditzen zait kirolari askori gertatzen zaigula: asko lantzen dugu gorputza, baina oso gutxi burua. Esango nuke jokatu ditudan lehenengo bi munduko txapelketetara ezin prestatuago iritsi nintzela, baina buruak huts egin zidala.

K.G.: Bai, buruko osasuna oso garrantzitsua da. Ondo zaudenean, ez duzu premiarik sentitzen, baina uste dut denok joan beharko ginatkeela halakotara. Azkeneko lau urteetako Euskal Herriko txapeladuna naiz ni harri-jasotzen, bosgarren txapela jokatuko dut orain, eta irabazi egin nahi dut, baina lesio batetik



"Iruditzen zait kirolari askori gertatzen zaigula: asko lantzen dugu gorputza, baina oso gutxi burua"

XABI OSA

nator eta horixe ari naiz bereziki lantzen. Neure buruari esaten diot ahal dudan guztia egingo dudala, baina ez dela ezer pasatzen azkena geratuta ere, neurea egiten badut. Baina teoria oso polita da, eta praktika, berriz, kaka bat.

X.O.: Niri ere asko kostatu zitzaidan, baina ikasi nuen. Lehen, asko inporta zitzaidan kanpoko jendeak nitaz pentsatzen zuenak, gertukoei huts egingo ote nien..., baina konturatu naiz maite nauen jendeak berdin-berdin maiteko nauela, izan txapelkun edo azken. lazko txapelketarako entrenatu nintzen, baina ez dut uste aurrekoetako sasoi berean nengoenik, lesio batetik ere banentorrelako, baina guk gurea egin genuen, hirugarren gelditu ginen eta pozik, guretzako jardun ginelako eta ez beste jende hori gustura geratu zedin. Uste dut gehiegizko presioa jartzen diogula kirolariok geure buruei.

K.G.: Hori da ulertu behar duguna: irabaztea ez dagoela beti gure esku, beste baldintza batzuk ere sartzen direlako jokoan. Besteak ere hor daude, gainera, eta norberak dena emanda ere izan daitezke gehiago. Eta zoriondu behar ditugu, lehiakiderik gabe txapelketarik ere ez legokeelako.

'Ginen'. Plurala erabili duzu, lehiatu bakarka lehiatu zinenean, Xabi.

X.O.: Jakina, bakarka arituta ere, kirolari guztien atzean dagoelako talde bat. Gure ahulguneak hobetzen

ematen dugu guk denbora asko, nahi eta ezin horretan, eta frustrazio handiak sortzen ditu horrek, ingurukoek ordaintzen dituztenak. Horregatik nire lorpenez ari naizenean beti pluralean hitz egiten dut.

Karmele, askotan galdetu izan didaten galdera bat egin nahi dizut: zer jaten duen kirolari profesional batek, askotan jendeak uste duelako nik letxuga, brokolia eta oilasko bularra bakarrik jaten ditudala.

K.G.: Gure aitak, entrenatzera Oiz mendira igotzen zenean, bueltan ez zuen urik edaten, txarto ikusia zegoelako. Pedro Langa zen orduan bere entrenatzailea, Deban bizi zena, eta astero txuleta-zinta bat ekartzen zion, egunean razioko txuleta bat jan zezan. Eta nire aitaren marka batzuk ez ditu inork gairiditu. Hamasei aldiz izan zen Euskal Herriko txapelduna eta hor daude bere markak, baina nik ikasi dudana da denetik jan behar dela, baina neurrian. Arazo bat badaukat, baina: oso-oso gozozalea naizela; etxetik datorkit.

X.O.: Nik ere azukre pixka bat behar dut otorduro. Galdetu dizut nik janariarekin arazoak izan nituelako. Eta ezagutu dut jendea beste kirol batzuetan ere janariarekin oso harreman ona izan ez duena. Nik uste izan nuen barazkiak eta arraina jan behar nituela bakarrik, nire gorputzak kanon baten barruan egon behar zuelako. Nutrizionistak zabaldu zizkidan begiak.

K.G.: Oso garrantzitsua iruditzen zaidan zerbait da benetan profesionalak direnen kontsultetara joatea. Eta buruko osasunarekin, berdin.



Udazken koloreak. RAYMUÑOZ

Ramon Hernaltes Treviño

7. URTEURRENA
2017/08/05

Zazpi urte pasatu
badira ere,
gure bihotzetan
jarraitzen duzu.

- ZURE FAMILIA -



Urtzi Abantzabalegi Arantzabal

1. URTEURRENA
2023/10/23

“Betirako gure
bihotzetan”

MAITE ZAITUGU

- ETXekoak -



M^a Angeles Arrieta Murgoitio

11. URTEURRENA
2013/10/25

“Hamaika urte badira ere
gure aldetik joan zarela...
EZ DITUGU INOIZ
AHAZTUKO
IZAN DITUZUN
ILUSIOA ETA BIZIPOZA”

- Jose Miguel eta Jaione Gorospe,
zure senarra eta zure alaba -



Urtzi Abantzabalegi Arantzabal

1. URTEURRENA
2023/10/23

“Denbora aurrera
badoa ere, URTZI
beti gure gogoan”

ABANTZABALEGITAR
FAMILIXIA



FUNEUSKADI
Grupo funerario

FUNERARIA MUGICA
Funerariak



24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Elbar:
Otaola, 27

Elbarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

Elgoibar:
Xizillon, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olatoko hilerriaren ondoan)

Ernuako bulegoa:
Marqués de Valdeipina, 16

Elbar · Elgoibar · Ernuak · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Urtzi Abantzabalegi Arantzabal

1. URTEURRENA
2023/10/23

“Zure gorputz
haundixak tamaiñako
bihotza gordetzen eban.
Gurian betirako
taupadaka dirau”

- MIRENEN KUADRILLA -



AbenturaPark-eko aktibitateak bihar egun osoz Untzagan

Klub Deportiboko mendi batzordeak oso ekimen berezia prestatu du biharko: Untzaga plazak hartuko duen AbenturaPark ekimena. Klubaren mendeurrena ospatzeko aktibitateen artean kokatu dezakegu jardunaldi hori, "heldu zein umeen gozamenerako, eurentzat apropos prestatutako jolas eta abarrek, guztientzat egokituta". Goizeko emanaldia 10:00etan hasiko da eta bost ordu iraungo du, 15:00ak arte; arratsaldekoak, bestalde, 17:00etatik 20:00ak arte iraungo du.

Bi tirolina, jumar eta rapel beste bina, 10 metroko trepa sarea eta bi kutxa dorre izango dira Untzagan, zirko eta oreka jolasekin batera. Eta 19:45etik aurrera slackline erakustaldiaz ere gozatu ahal izango dugu, hau da, oreka soka alturarekin. Adin guztietarako egokituko diren aipatutako aktibitateak doakoak izango dira.



Oinarri infantil mailako Ipurua klubeko taldea ere izango da domekako Torneoan.

Etzi gimnasia erritmikako 24. San Andres Torneoa jokatu da Ipurua kiroldegian

Etziko txapelketak, gainera, orain arteko marka guztiak gaindituko ditu, egun osoko programazioan 500 gimnastaren bueltan izango direlako parte hartzen, 51 klub ordezkatzeko. Goizean taldeen txanda izango da, estatuko 1. Mailako ordezkariak esanguratsuekin eta, horrez aparte, senior, junior, infantil maila absolutu, oinarriko infantil, oinarriko kadete eta oinarriko junior mailako talde askorekin. Bezperan, zapatuan, Tolosako torneoan izango dira parte hartzen Ipuruako lehen mailako hiru taldeak.

Bestalde, estatu mailako txapelketan parte hartzen duten Ipurua Klubeko hiru taldeek Euskadiko Txapelketan hartu zuten parte aurreko domekan eta, "erkidego mailan denboraldiko hitzordu garrantzitsuenetarikoa den horretan", hirugarren postua eskuratu zuten hirurek. Senior mailakoek muntaia konplexuarekin dihardute lanean eta emaitza horrekin ezin izan zuten Espainiako Kopako 3. faserako txartela eskuratu; oinarri junior talde berrituak eta infantil mailakoak ere ondo baino hobeto lehiatu zuten.



Aramaioko tiraldian izandako bolari onenak, euren sariekin.

Asola Berriko Ganix Rodriguez garaile izan zen Aramaioko tiraldian

Eibartarrak izan genituen buru-buru aurreko zapatuan Aramaioko bolatokian jokatuak Euskal Herriko 34. Hiru-Txirlo bola joko txapelketaren bigarren jardunaldian. Asola Berriko Ganix Rodriguezek eta orain Elgetako kluba ordezkatzeko duen Bittor Astigarraga, eibartarrak biak, berdindu zuten zazpi txirlo botata jaurtialdi horretan; parrekoetan Ganix izan zen garaile. Lasturreko Joseba Lazkanok, sei txirlorekin, eta Floreagako Santos

Muñozek, bostekin, jarraitu zioten hirugarren eta laugarren postuetan, hurrenez hurren.

Une honetan Ganix lider da sailkapen nagusian, Isana Gorosabel aretxabaletarekin berdinduta. Txirlo bakarrera dago boskote bat, eta bi txirlora daude Juan Luis Rodriguez eta B. Astigarraga eibartarrak. Bihar txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu da Soraluzekeko San Andreseko bolatokian, 17:00etan hasita.

Eibarko taldeak garaile kanasta bakarrari esker

Senior mailako Eibar Saskibaloiko ordezkari biek garaipen garrantzitsuak eskuratu zituzten azken jardunaldian. Probintziako 2. Mailan jokatzeko duen Artesanos Juantxo lehen taldeak 73-75 irabazi zion Antigua Luberriri bere pistan eta, horrela, orain arte jokatuak hiru partiduak irabazita, bere multzoko lider bakarra da egun, sailkapenean 213 puntu alde eta 178 kontrako erakutsiz. Aldapeta Maria Ikastetxea eta Easo Basket Aizkorri ditu puntu bakarrera. Probintziako 3. Mailan jokatzeko duen Eibar Saskibaloia B bigarren taldeak garaipen oraindik justuagoa lortu zuen Astigarragako Mundaroren kantxan,



46-47 nagusituta. Emaizta horrekin sailkapenaren erdialdean kokatzen da, garaipen eta porrot banarekin. Zapatuan Ipuruia kiroldegia hartuko ditu bi taldeen partiduak: Artesanos Juantxo liderrak bere multzoko Astigarragako hartuko du 14:30etik aurrera eta, jarraian, Eibar Saskibaloia B eta Antigua Luberriren artekoa jokatu da, 16:15etik aurrera.

Gipuzkoako txapelketako final laurdenak jokatu dira gaur Astelenan

Probintziako txapelketetako lau partidu hartuko ditu Astelena frontoiak gaurko jaialdian: euretako bi banakako txapelketari dagozkionak, eta ondorengo biak banakako lehiaketakoak. Arratsaldeko 18:30ean abiatuko da programazioa, errendimendu mailako buruz burukoekin. Bertan Eibarko bi ordezkari Goierriko beste biri egingo diete aurre: Agotek, zaletuen animoak lagun dituela, Enriqueri egingo dio aurre, eta jarraian Colmenerok aprobetxatu nahiko du etxean jokatzeko duela Lizarraldearen kontrako partiduan.



Ondoren, Gipuzkoako binakako txapelketako final-laurdenetako ordua izango da, kadete eta helduen mailetako partiduekin. Gazteen kasuan, orain arteko partidu guztiak irabazi dituen Varona-Gil bikotea aurrera egiten ahaleginduko da Oartzungo Oiarpe I bikotearen aurrean. Eta amaitzeko, nagusien partiduan, lehenengo fase bikaina osatu eta gero, Ibarra-Agirresarobe Eibarko bikoteak Azpeitiko Ilunpe I taldeko bikotea garaitzen ahaleginduko da.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Gizonezkoen 2. Maila

Malaga - EIBAR (etzi, 14:00)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - Gernika (bihar, 16:00)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - Zaragoza (etzi, 15:30)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

Lagun Onak - EIBAR C (bihar, 17:00)

Emakumezkoen Euskal Liga

Hernani - EIBAR C (bihar, 18:00)

Erregionaleko Gorengo Maila

Ilintxa - URKI (etzi, 16:30)

EIBARTARRAK - Zumaia (bihar, 12:30)

Erregionaleko 1. Maila

Elgoibar B - URKI B (bihar, 18:00)

Jubeniletako Ohorezko Maila

EIBAR - Valvanera (etzi, 18:00)

Jubeniletako Nazional Liga

Leioa - EIBAR B (etzi, 12:30)

Jubeniletako Euskal Liga

EIBAR B - Arrupe (bihar, 18:30)

Kadeteetako Euskal Liga

EIBAR - Kostkas (etzi, 12:30)

FUTBOL-ZALETUA

- Limpieza Rueda - BOJ (bihar, 09:00)
- Xania - Adahi-Etxegi (bihar, 10:30)
- Kalaka B. Aires - Malape (etzi, 09:00)
- Bar Marem - Garajes Garcia (etzi, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

EIBARTARRAK - Irun (bihar, 15:30)

ESKUBALOIA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila

MEK EIBAR - Kukullaga (bihar, 18:30)

Gizonezkoen 1. Nazional Maila

Utebo - MEK EIBAR (etzi, 12:30)

Emakumezkoen Euskadiko Liga

Zuazo Senior - MEK EIBAR B (bihar, 19:45)

Gizonezkoen Lurraldeko Liga

MEK EIBAR B - Urola (bihar, 16:30)

FRUGBIA

Emakumezkoen Ohorezko B Liga

Atletico Portuense - EIBAR (bihar, 15:30)

SASKIBALOIA

Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

ARTES. JUANTXO - Mundarro (bihar, 14:30)

Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

EIBAR SASKI - Erroibide Irun (etzi, 11:30)

Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

EIBAR B - Antigua Luberrri (bihar, 16:15)

WATERPOLOA

Gizonezkoen 2. Nazional Maila

Colegio Brains - URBAT (bihar, 16:00)

Gizonezkoen Euskal Herriko Liga

WP Donostia - URBAT B (bihar, 20:15)

“Barrutik ateratzen zaidana egiten dut, pentsatu gabe”

Probintziako talentu musikalaz gozatzeko aukera izango dugu bihar, Ipurua kiroldegian eta Coliseo antzokian. Goizean, 11:30ean, Leire Dallasek dantza ikastaroa eskainiko du kiroldegian (doan, 14-18 urte artekoentzat). Arratsaldean, berriz, 19:00etatik aurrera, Noan eta Udaz musikariek kontzertua eskainiko dute Coliseo antzokian.

Udazken Salaberria, Udaz, izango da biharko saioan izango dugun Eibarko ordezkaria. 17 urteko musikariak bakarkako bidea hasi du eta bere abestiekin lehen kontzertua eskainiko du herrikideen aurrean. Gaztea izan arren, heldutasun izugarria eskaintzen dute musika estilo ezberdinak uztartzen dituzten bere doinuek.

Zer moduz zaude biharko kontzertuaren aurrean?

Nire lehenengo aldia izango da eibartarren aurrean bakarlari bezala eta oso urduri nago, baina demaseko gogoarekin. Oso eskertuta nago aukera hau edukitzeagatik. Gainera, Eibarren izanik, lagunak eta familiakoak etorriko dira eta hunkigarria izango da.

Aurretik izan zara Coliseoko eszenatoki gainean. Esperientzia edukitzea lagungarria egingo zaizu?

Eibarko Koro Gaztearekin eta Musika Eskolarekin aritu naiz Coliseon, baina bakarrik ez naiz inoiz igo eszenatoki batera. Beraz, ezberdina izango da. Gainera, abesti originalak eskainiko ditut eta irrikitan nago publikoari gustatzen zaizkion ala ez jakiteko.

Nolako kontzertua izaten saiatuko zara? Kontzertua hiru zatitan banatu dut, hizkuntzaren arabera. Euskaraz, ingelesez eta gazteleraz abesten dut, eta

horren eta gaien arabera banatu ditut abestiak.

Nola erabakitzen duzu abestiak hizkuntza batean edo bestean egin?

Momentuan irtetzen zaidan zerbait da. Abesti bat konposatzen hasten naizenean, esperientzia hori bizi izan dudan moduaren arabera eta nire sentimenduak nola adierazi nahi dudanaren arabera egiten dut hizkuntza batean edo bestean. Gauza horiek azaltzeko hizkuntzarik egokiena zein den pentsatzen dut.

Zure kasuan zer sortzen duzu lehenik: musika ala letrak?

Normalean, gitarrarekin abestia konposatzen dut lehenik eta behin, akordeak ateratzen ditut, eta hori egin ondoren letrak sortzen ditut.

Oso gaztea zara eta, hala ere, denbora daramazu musikaren munduan. Nola hasi zinen?

Amama eta aita beti aritu dira musikatresnak jotzen eta txikitatik jaso dut musikaren eragina. Oso txikitatik hasi nintzen solfeoan, 7 urterekin gitarra jotzen hasi nintzen eta, harrezkero, beti jarraitu dut mundu horretan. Gero, abestiak konposatzen hasi nintzen, kantak programatzen ikasi nuen eta gustatu zitzaidan.

Azken hori etxean egiten duzu, ezta?

Bai, den-dena. Probatzea, huts egitea eta ikastea da kontua. Barrutik ateratzen zaidana egiten dut, pentsatu gabe.





Bakarleri bezala estreinekoz arituko da herrikideen aurrean. UDAZ

“Bihar sei abesti kantatuko ditut, denak originalak, eta gogoia dut abestiak plataformetara igotzeko”

Zenbat urterekin hasi zinen konposatzen?

13-14 urterekin; grabatu eta ekoiztu nuen lehen abestia 14 rekin egin bainuen.

Amama eta aita aipatu dituzu. Eurak dira zure erreferenteak edo baduzu beste norbait?

Amamari beti izan diot demaseko maitasuna eta erreferente argia da niretzat. Adibidez, kaleratu dudan azken abestia, ‘Zure pausuak jarraitzen’, bere omenez egin dut eta bere musika-tresnak erabili ditut. Aitak ere asko bultzatu dit musikan jarraitzeko. Bestalde, musika-mota asko entzuten dut, genero bakoitzak aprobetxagarria den zerbait duelako.

Zure musika nolakoa dela esango zenuke?

Ez zait nire musika definitzea gustatzen, oraindik gaztea naizelako. Abestiek ez dute zerikusirik batak bestearekin, oso estilo ezberdinekoak direlako. Ez naiz ezertara ixten. Dena dela, esan dezaket

indie eta pop estiloetara hurbiltzen naizela gehienetan.

Momentuz zure bi abesti entzun daitezke plataformetan. Nolakoak dira?

‘Don’t let me go’ abestiak, argitaratu nuen lehenengoak eta ekoiztu izan dudana lehen abestietakoak, indie-pop doinu lasaiak ditu. Billie Eilish-en antza duela esan izan didate. Demaseko loreak dira horiek. Beste abestian, euskarazkoan, ‘Zure pausuak jarraitzen’, soinu ezberdinekin esperimentatu nahi izan dut. Hasieran elektronikoagoa edo espazialagoa da, baina azkenengo zatian akustikoagoa.

Bihar abesti gehiago erakutsiko dituzu jendaurrean. Material horrekin zerbait egiteko asmoa duzu?

Bihar sei abesti kantatuko ditut, denak originalak, eta gogoia dut abestiak plataformetara igotzeko. 2025a iritsi baino lehen beste bi abesti ateratzeko asmoa dut.



Dantza eta erritmo solidarioak Errebalen

Zumba 90. hamarkadan Alberto 'Beto' Perez kolonbiarrak sortutako fitness diziplina bat da, errutina aerobikoak dantza mugimenduen bidez lantzen dituen. Zumba saio bakoitzak onura ugari eskaintzen dizkio ariketa egiten duenari eta, Zumbatoiaren bidez, onurak beste pertsona batzuei iristen zaizkie, izaera solidarioa duen ekimena delako.

Zumbatoiak, zumba maratoi solidarioak, 7. edizioa beteko du aurtengoan. Nerea Blasco eibartarrak bultzatutako ekimena da, zumba titulua atera zuenetik. Izan ere, lizentzia hori edukitzeagatik zumbatoi solidarioak egiteko aukera zegoela jakinarazi zioten eta, esan eta egin, gurean horrelakoak antolatzen hasi zen.

Hasierako ekitaldiak Astelena frontoian egin zituzten eta iaz Errebal Plazara pasa zuten. Aurten ere bertan egingo dute, bihar bertan, 10:30etik 12:30era. Nerea Blascok eta KAXAko neskek gidatuko dute saioa eta Esti Curiel aktorea arituko da aurkezle lanetan.

Urte batzuk geroago KAXA mugimendu eta sormen guneko neskek batu zitzairen zumbatoiaren antolakuntzan. "Horrelako ekimen bat antolatzeko gogoia genuen eta ikusi genuen dagoeneko herrian bat egingen zela. Beraz, Nerearekin harremanetan jarri eta indarrak batu genituen", esan digu KAXAko Marta Prolek. Orain, hasi zenetik zortzi urte pasa direnean (2020an ezin izan zen egin pandemiarengatik), herrian egonkortuta dagoen egitasmoa da eta lagun ugari biltzen ditu urtero.

Zumba nahieran

Hasierako ekitaldiak Astelena frontoian egin zituzten, Ipuruako kiroldegian ere izan dira, eta iaz Errebal Plazara pasa zuten. Aurten ere bertan egingo dute, bihar bertan, 10:30etik 12:30era.

Nerea Blascok, bere zumba klaseetako ikasle batzuk (Gainberrikoak) eta KAXAko neskek gidatuko dute saioa eta Esti Curiel aktorea arituko da aurkezle lanetan. Dantzari dagokionez, Prolek esan digu edonork egiteko moduko dantzak izango direla eta, gainera, bakoitzak nahi beste

dantza egin dezake: ordu biak, ordubete, 10 minutu ala dena delakoa.

Musika gabe dantza gauza berdina ez denez, Arno DJ-a egongo da goiza girotzen, dantza egiteko musika erritmo egokienak jarritz. Gainera, zumba maratonia egiten laguntzen duten enpresa eta negozioiek hainbat gauza zozketatuko dituzte goizean zehar.

Sarrerak aurretik edo bihar bertan

Aurreko edizioetan jende ugari hartu du parte zumba maratoni solidarioan eta sarrera mugatuak jarri dituzte salgai. 10 euro ordaindu beharko dira Zumbatoian parte hartzeko (10 urtez azpikoek ez dute ezer ordaindu beharko) eta gaur edo bihar erosi daitezke.

Gaur eskuratu nahi izanez gero, KAXA gunean (Jose Antonio Gisasola, 4), Ibone estetikan (Romualdo Galdos, 10) eta Helmet Housen (Blas Etxebarria, 1) erosi daitezke. Bestela, bihar Errebal Plazan ere egongo da sarrerak erosteko aukera.

Badago, ostera, lagundu nahi baina ekitaldira joan ezin den jendea edo dantza egiteko aukerarik ez duena. Eurek ere, lagundu nahi izanez gero, sarrerak erosi ditzakete, azken finean izaera solidarioa duen ekimena delakoa.

Diagnostikatu Gabeko Gaixotasunen Kaltetuen Elkarte

Zumba maratoniak izaera solidarioa du eta, lehenengo edizioan ezik beste guztietan egin den bezala, ekimenean jasotako diru guztia Diagnostikatu Gabeko Gaixotasunen Kaltetuen Elkarte (AFESD) emango diote.

2016ko apirilean jarri zen martxan diagnostikatu gabeko gaixotasunak dituzten Eibarko umeen elkarte. Gizarte segurantzak hartzen ez dituen tratamenduak behar dituzte haur horiek: fisioterapia, hidroterapia, logopedia, naturopatia..., eta elkarteko gurasoen helburua gastu horiei aurre egiteko dirua lortzea da.

Zumbatoian parte hartzeaz gain edo bertan egon ezin bazara baina lagundu nahi izanez gero, elkartearekin zuzenean harremanetan jartzea da egokiena. Horretarako, Facebooken orria dute (@afesdeibar) eta baita helbide elektronikoa ere (afesd@outlook.es).



Errebal Plazak zumba maratoni solidarioa hartuko du bihar 10:30etik 12:30era



Urtero-urtero jende ugari elkartzten da zumba egiteko izaera solidarioarekin. ZUMBATHON EIBAR



Gurasoak Berbetan eta Ongietorriko familiak Peru Harrin izan dira

...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen dituen Gurasoak Berbetan eta Ongietorri egitasmoetako familiak goiz parte ederra pasa zuten aurreko zapatuan Peru Harri museoa bisitatzen. Iñaki Perurena handiak Leitza bere jaioterrian harriaren inguruan egindako museoa goitik behera ikusi zuten eta adi jarraitu zituzten harri-jasotzailearen azalpen guztiak. Katapulta probatzen ondo pasa zuten heldu zein txikiek eta, museoaren ingurumariak ikusi ondoren, autobusa hartu eta pozarren itzuli ziren Eibarrera.



Barixakuak Jolasian Urkizuko parkean egingo da gaur



Urkizuko parkeak hartuko ditu gaur Barixakuak Jolasian ekimenaren hilabeteko azkeneko jolasak. 17:00etatik hasita, ordubetetz, jolas dibertigarriak antolatuko ditu ...eta kitto! Euskara Elkarteak begiraleen laguntzarekin, 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat doan.

ILLUNABARRIAN

Hilabete honetako ikastaroa

Ardogintza ekologikoa



Ardoa:

Nafarroako Azpea upategikoa

Hizlaria: Gorka Perez

Noiz: Urriak 30, eguaztena

Ordua: 19:00-21:00

Lekua: ...eta kitto! Euskara Elkarte (Urkizu 11 solairuartea)

Izen-ematea:

elkartea@etakitto.eus

943 200918 /

www.etakitto.eus

Prezioa: 5 euro

(...eta kitto!ko bazkideek 4 euro)



Bertso-paper lehiaketako lanak entregatzeko azkeneko egunak

Urriaren 30era arteko epea dute San Andres bertso-paper lehiaketara aurkeztu nahi dutenek. Bi mailetako parte-hartzaileek (16 urtetik beherako Eibarko ikasleek eta Euskal Herri osoko 16tik gorakoek) ...eta kitto! Euskara Elkartera (Urkizu 11, solairuartea) bidali edo bertan entregatu beharko dituzte lanak urriaren 30erako. Irabazleek azaroaren 22an Coliseon egingo den San Andres Bertso Jaialdiaren jasoko dituzte sariak.

Film Laburren Jaialdiak zilarrezko ezteiak beteko ditu aurten

Azaroaren 4an hasi eta handik bost egunera, hilaren 9an, amaituko den Asier Errasti Film Laburren Jaialdiak 25. edizioa biziko du oraingoan. Ohiko bideari jarraituz, Coliseo antzokiak hartuko ditu ekitaldiko saio guztiak, astelehenetik barixakura arteko proiektzioak 20:00etan hasita, eta sari banaketaren azken ekitaldia zapatuan egingo dute ordu erdi lehenago hasita, hau da, 19:30etik aurrera.

Guztira 60 lan aurkeztuko dira oraingoan, eta egunero 12 proiektatuko dira. Euren artean fikziozkoak dira nagusi: egunero mota horretako hamar lan eskainiko dira, eta beste bi animaziozkoak izango dira. Hori bai, asteleheneko saioan hiru izango dira animaziozko proiektzioak, eta fikziozkoak bederatziz. Planocorto elkarteak antolatzen duen Jaialdiak doako proiektzioak eskaintzen dizkio jendeari. Egileei dagokienez, %60 gizonezkoek zuzendutako film laburrak dira, eta beste %40 emakumeek ekoiztutakoak.

Bestalde, euskal lanei dagokienez, sei izango dira guztira, batez ere izenei erreparatuta: astelehenean, Eneko Sagardoyren "Betiko gaua" eta Ekain Irigoienek "Europa"; martitzenean, Lander Castroren "Hotz"; eguaztenean, Aritz Elgezabalen "Egun ona"; egunean, Jone Arriolaren "Dena asmatuta dago" eta Sonia Estevezen "Plazer bat"; eta barixakuan, Irati Santiagoren "Itsasoan lamiak".

60 film labur, bost egunetan banatuta

Astelehenean: "Sábado" (9' 30"), "Periquitos" (6' 21"), "Betiko gaua" (17' 40"), "Regreso al armario" (10' 59"), animaziozko "Estimada Angela" (10' 57"), "¿Qué estás haciendo con tu vida?" (5' 49"), "El aprendiz" (14' 59"), animaziozko "Europa" (7' 54"), "Arena y piedra" (16' 28") eta "Mosquito" (15' 43").

Martitzenean: "Casting" (7' 13"), animaziozko "Fallin" (10' 43"), "Hotz" (9' 12"), "Macedonia" (14' 40"), "Vida



Aurtengo edizioako kartela. Badira 25 urte zikloa hasi zutela.

o teatro" (16' 47"), animaziozko "Cafuné" (8' 01"), "Ese lugar partido" (8' 30"), "Sombras" (19' 57"), "Corto de bajo presupuesto en un restaurant" (9' 48") eta "La lista" (12' 45").

Eguaztenean: "The fruter and the husband" (9' 25"), animaziozko "Maleza" (5' 35"), "Egun ona" (5' 52"), "8 de febrero" (15' 30"), "Sarcum" (12' 57"), "La ley del más fuerte" (18' 49"), animaziozko "Nieve roja" (4' 57"), "El juego de su vida" (14' 57"), "Jueves de marzo" (17' 19") eta "Superhost" (14' 30").

Eguenean: "Mierda para mamá" (3' 38"), animaziozko "Yo voy conmigo" (7' 06"), "Dena asmatuta dago" (14' 49"), "Cuarentena" (6' 16"), "Blava terra" (19' 51"), "La piscina vacía" (12' 04"), "Tribu" (20' 00"), animaziozko "Plazer bat" (4' 05"), "Génesis" (11' 31") eta "Tumbas vecinas" (16' 24").

Barixakuan: "La muerte de Andrés" (3' 58"), animaziozko "To bird or not to bird" (9' 22"), "Itsasoan lamiak" (4' 02"), "Pequeño" (12' 10"), "Colorado" (14' 32"), "El trono" (13' 44"), "Deadly draw" (10' 30"), "(R) ojo por (r) ojo" (14' 44"), "Eli" (16' 59"), animaziozko "Todos mis colores" (4' 55"), "Antes de que se ponga el sol" (12' 17") eta "Te quiero demasiadas veces" (2' 44").



Heavy Metal Festa Urkari talde eibartarrarekin

Bihar 20:00etan hasiko da Urkari Eibarko musika taldearen kontzertua, Calbeton kaleko Chic tabernan. Taldekideek esan digutenez, “Heavy Metal Festa deitu diogu emanaldiari, guk egiten dugun musika estilo horretakoa delako. Batez ere abesti klasikoak, ezagunak jorratzen ditugu. Labur esanda, biharkoa berbena heavy moduko bat izango da. Nahiz eta jakin gure inguruan heavy/rock musikaren zale asko daudela, gar egun nekez entzuten da horrelako musikarik tabernetan. Gure alde-tik, tarte batean bada behintzat, hutsune hori betetzen saiatuko gara, ahal dugun neurrian jendeari primeran pasarazteko aukera eskainiz”. Aitor Markinak (ahotsa), Xabier Pagueyk (kitarra), Anthoni Bilbaok (kitarra), Aitor Izurietak (bateria) eta Josu Agirrek (baxua) osatzen dute taldea. Legarreko lokaletan ensaiatzen dute, eta bertako musikoen elkarteak antolatatu zuten Walter Tuzzeoren omenezko jaialdian parte hartu zuen.



Agatha Christie protagonista gaurko bideo-forum saioan

Gaur itzuliko dira Pagatxa emakume taldearen bideo-forum saioak Andretxeara. *Emakumeen Istorioak zikloaren* baitan, Agatha Christie idazle ezagunari buruz arituko dira, 18:00etatik aurrera, Patricia Perex Cotok dinamizatuko duen saioan. Sarrera librea da.



Bixen Ibarrodok zuzenduko du Musika Banda domekan

Kaleko kontzertuen sasoia atzean laga eta Coliseo antzokian emanaldia eskainiko du Eibarko Musika Bandak. Ikuskizuna domekan izango da, 12:30ean, eta aldaketa esanguratsua egongo da zuzendaritzan. Izan ere, Andoni Vazquez zuzendaria ez da egongo eta Bixen Ibarrodok gidatuko du banda, lehen aldiz zuzendari lanak eginez. Errepertorioari dagokionez, askotariko doinuak entzungo ditugu: ‘Gloria al trabajo’ (J. Texidor), ‘Nada y mucho’ (J.C. de Arriaga), ‘Ross Roy’ (Jacob de Haan), Mary Poppins (R.S. Sherman) eta ‘Autumn leaves’ (Joseph Kosma eta J. Prevent).



Familian gozatzeko moduko antzezlan euskaraz

Azaroaren 2an, 17:00etan, *Ama, amama, mamuak!* izenburuko antzezki zuna eskainiko dute Coliseo antzokian Naita Produzioak taldeko Nerea Ariznabarreta eta Aitor Vinagretrek. Diotenez, lan horrek “hildakoei, mamuei eta oroitzapenei buruzko abentura zirraragarria” kontatzen du. 5 eta 12 urte bitarteko haurrentzat eta familientzat egokia den lana euskaraz taularatuko dute. Sarrerak 5 euro balio du.



Mahai-jokoetako eskaintza zabala erakutsi zuen Odiseak

Arrakastatsuak izan dira, beste behin, Odisea elkarteak antolatutako *Ulisesen Jokoak* jardunaldiak. Elkarteko kideak egun osoan egon ziren Errebalen, gerturatu zen jendeari era guztietako mahai-jokoetan aritzeko aukera ematen. Ekitaldira joko-eskaintza zabala eraman zuten: lagunekin batera, taldean jokatzeko modukoak, familia osoa elkarrekin ondo pasatzeko modukoak, estrategia-jokoak, misteriozkoak, irabazteko trebezia izatea eskatzen dutenak... Denetarik izan zen, baita euskarazko jokoak ere. Jardunaldietako argazkiak eta bideoa www.etakitto.eus-en daude ikusgai.



The Soulers taldeak joko du azaroko Musika Klubean

Eibarko Kulturatik antolatzen den Musika Klubean eskutik, The Soulers talde asturiarraren kontzertua hartuko du Coliseo antzokiak, 19:00etan. Mundu eta musika estilo ezberdinetatik datozen kideek osatzen dute, eta horrek moldakortasun eta eklektizismo handia ematen dio taldearen soinuari. Jotzen dituzten abestiek soul, jazz eta R&B musikaren kutsua dute, eta taldeak sari ugari jaso ditu azken aldi honetan. Sarrerak 10 euro balio du, 7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin.



Bihar esango diogu agur Garagardo Festari

Eibarren eguenetik ospatzen ari den Oktober Fest Garagardo Festak bihar izango du azken eguna. Ekimena herriko 26 tabernarik bultzatu dute, "herria animatu eta kale giroa pizteko" asmoarekin, eta EMGI elkartearen eta Udalaren laguntasuna izan du. Taberna bakoitzak bere garagardoak eskainiko ditu, eta animatzen direnek "janari goxoak ere prestatu ditzakete", okasiorako taberna apaintzeko aukera baztertu barik. Bihar arratsaldean, gainera, bi txaranga ibiliko dira Eibarko kaleak musikarekin girotzen.

Azaroaren 6an eta 7an jokatu da XX. Eibarko Pintxo Lehiaketa

Arrate Kultur Elkarteak Sanandresetarako urtero antolatzen duen Eibarko Pintxo Lehiaketa azaroko lehen astean, eguaztenean eta eguenean egingo dute. Aurten hogeigarrenez egingo den lehiaketarako izenematea asteburuan itxi zuten, eta laster jakinaraziko dituzte lehiaketan parte hartuko duten tabernak, eta bakoitza zein pintxorekin lehiatuko den. Beti bezala, epai-mahaiak emango dituen sariez gain, bezeroek boto bidez erabakiko dutena ere banatuko dute.

Ibon Rokandioren erakusketa



Azaroaren 3ra arte egongo da ikusgai *Erro garaituak* izenburuko erakusketa Arrate Kultur Elkartearen Topalekuan. Bertan Ibon Rokandioren argazkiak ikus

daitezke, eta jarraian zehazten den ordutegiaren barruan bisitatu ahalko da: astelehenetik barixakura, 19:00etatik 21:00etara; eta asteburuetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.



AURKITU 10 DESBERDINTASUNAK

**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A**



LOTUIZU JABE BAKOITZA BERE TXAKURRAREKIN

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

						1
		1		5	2	6
7	2	5	8			
9		8		4		7
						3
3	4			7	2	5
				4	3	5
1	3		6		4	
5						

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A
C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B
D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C
E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D
F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E
G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F
H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G
I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H
J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K
M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L
N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M
O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N
P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O
Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P
R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q
S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R
T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S
U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T
V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U
W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V
X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W
Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X
Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	8	6		2	7			
5		7			4		9	
					6			1
				6			3	2
		8				9		
2	4			9				
1			6					
	6		7			3		9
			5	8		1	6	

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A
C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B
D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C
E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D
F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E
G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F
H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G
I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H
J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K
M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L
N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M
O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N
P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O
Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P
R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q
S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R
T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S
U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T
V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U
W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V
X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W
Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X
Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y

soluzioa

Urriak 25 / Azaroak 7

BARIXAKUA 25

BARIXAKUAK JOLASIAN
17:00/18:00 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolasak, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Doan. Urkizuko parkea.

OKTOBER FEST

Oktober Fest
 Garagardo Festa.
 Eibarko 26 tabernatan.

BIDEO-FORUMA

18:00/19:30 Emakumeen Istoriako: Agatha Christie. Dinamizatzailea: Patricia Perex Coto. Doan. Andretxea.

HITZALDIA

18:30 "1934ko iraultza Euskal Herrian eta Eibarren", Jesus Gutierrez historialariaren eskutik. Antolatzailea: Deba Bailarako Kontseilu Sozialista. Doan. Arrate Kultur Elkartea.



SARI-BANAKETA

19:00 Indalecio Ojanguren XXXVII. argazki-lehiaketako irabazleei sariak banatzeko ekitaldia eta erakusketaren inaugurazioa. Portalea (areto nagusia). Portalea.

ZAPATUA 26

ABENTURAPARK
10:00/15:00 eta 17:00/20:00
 Aktibitateak: 2 tirolina, 2 jumar eta rapel, 10 metroko trepa sareak, zirko jolasak, oreka jolasak, 2 kutxa dorre.
19:45 Slackline erakustaldia (oreka soka alturan). Doan. Untzaga plaza.

ZUMBATHON

10:00/12:30 VII. Zumba maratoni solidarioa, AFESD elkarteari laguntzeko. 10 euro (doan 10 urtetik beherakoak). Errebal Plazia.

GIPUZKOAN GAZTE TOUR

11:30 Dantza masterclass-a, Leire Dallasekin, Ipurua kiroldegian (izena eman eta onartu dituztenentzat).
19:00 Kontzertua: Udaz eta Noan. 5 euro. Coliseo.

OKTOBER FEST

Oktober Fest Garagardo Festa. Kale-animazioa, bi txarangaren eskutik. Eibarko 26 tabernatan.



ZAPATUKO IPUINA

18:00 "Bazen behin oihan zikin bat" kontakizuna, Ane Gebararen eskutik. Asteklimaren baitan. Doan (aurretik izena emanda). Portalea (areto nagusia).

MUSIKA

20:00 Heavy Metal Festa, Urkari taldearen eskutik. Chic taberna.

DOMEKA 27

PINTURA LEHIAKETA

09:00/13:30 XLVII. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa.
08:30/11:00 Izen-ematea eta materiala zigilatzea.
13:30 Lanen bilketa.
14:00 Sari-banaketa. Udaletxea.

ASTEKLIMA

09:30 "Botanika, baso-kudeaketa eta klima-aldaketa (Pagaegikortza proiektua)" ibilbidea, Lurguia Fundazioaren eta Eibarko Baso Biziak elkartearen laguntzarekin. Ixuako aparkalekutik abiatuta.

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Zuzendaria: Bixen Ibarrodo. Doan, gonbidapenarekin. Coliseo.

ASTELEHENA 28

KANTU SAIO IREKIA

19:00 Euskal kanta tradizionalak. Arrate Kultur Elkartea.

EGUAZTENA 30

HITZALDIA

19:15 "Gaza. Gizatasun krisia". Hizlaria: Barbara Ruiz (UNRWA Euskadi). Untzaga gizarte zentroa.

ZAPATUA 2

ANTZERKIA

17:00 "Ama, amama, mamuak!" (Naita Produzioak). Familiarra, euskaraz. 5 euro. Coliseo.

DOMEKA 3

MUSIKA KLUBA

19:00 The Soulers (Soul, Jazz eta R&B). 10 euro (7euro Coliseoko Lagunaren txartelarekin). Coliseo.

EGUAZTENA 6

ARGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko borondateei buruzko informazio zerbitzua, Ikasten elkartearen eskutik. Untzaga gizarte zentroa (Arrate aretoa).

FRAKUSKETAK

Azaroaren 3ra arte:

- "ERRO GARAITUAK", Ibon Rokandioren argazkiak. (Topaleku)

Azaroaren 17ra arte:

- INDALECIO OJANGUREN XXXVII. argazki lehiaketako lanak. (Portalea)

Azaroaren 29ra arte:

- "LUMINESZENTEAK, 63 historia emakumeen aurkako indarkeria ikusezinari buruz", Irantzu Pastor eta Igone Mariezkurrenaren eskutik. (Andretxea)

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **27an:** 20:00
- **28an:** 19:30

“Los destellos”
DRAMA



2024/Espainia/101'
Zuzendaria: Pilar Palomero
Aktoreak: Patricia Lopez Arnaiz,
Antonio Torre, Marina Guerola
Familia / Gaixotasuna

2 ARETOA

- **26an:** 22:30
- **27an:** 17:00, 20:00
- **28an:** 19:30

“El club de los milagros”
KOMEDIA



2023/Irlanda/91'
Zuzendaria: Thaddeus O'Sullivan
Protagonista: Laura Linney,
Maggie Smith, Kathy Bates
Drama / Bidaia Lourdesera

ANTZOKIA

- **26an:** 17:00, 19:45, 22:30 (1)
- **27an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **28an:** 19:30

“La habitación de al lado”
DRAMA



2024/Espainia/107'
Zuzendaria: Pedro Almodovar
Aktoreak: Julianne Moore,
Tilda Swinton, John Turturro
Gaixotasuna / Literatura

ANTZOKIA

- **26an:** 17:00, 19:45 (2 Aretoa)
- **27an:** 17:00

“Robot Salvaje”
ANIMAZIOA



2024/AEB/101'
Zuzendaria: Chris Sanders
Zientzia fikzioa / Robotak / Animaliak



leku berri bat Ego-Gain, 2
943 558728

TOPA-LEKU
taberna

egunero elkarrekin egoteko

ek!

Zure publizitatea
herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue.



Zorionak, **IAN!**
Atzo 10 urte bete zenduaz eta. Jarraitu horren alai! Besarkada erraldoi bat famelixaren partez.



Zorionak, **SARA,** printzesa, hillaren 15ian 2 urte bete zenduaz eta. Askok maitte zaituen amama eta etxekuen partez!!!



Zorionak, **DANEL,** domekan 3 urte beteko dozuz eta. Patxo haundi bat famelixaren partez. Ondo ondo ospatuko dogu!!!



Zorionak, **LUKA-**txo, mutil haundi!!! Hillaren 31n 6 urte eder beteko dozuz eta. Hori da bizipoza! Etxekuok asko maitte zaittugu!



Zorionak, **ENEKO!!**
Atzo 7 urte bete zittuan gure etxeko mutil haundixak!! Patxo pilla bat etxekuen partez.



Zorionak, **IRUNE!**
Eguaztenian 8 urte beteko dozuz eta. Musu potolo bat famelixaren partez!!!



Zorionak, **ENEKO,** atzo 7 urte bete zenduaz eta. Famelixaren partez.



Zorionak, **MAIA!!**
Hillaren 19xan 2 urte bete zenduaz eta! Musu erraldoia famelixaren eta, bereziki, Nuraren partez.



Zorionak, **ANE,** bixar 7 urte beteko dozuz eta. Maitte zaittugu. Famelixaren partez.



Zorionak, **PAULE!**
Gaur 2 urte beteko dozuzelako! Musu haundi bat Malen eta famelixaren partez!



Zorionak, **OINATZ.**
Bixar 12 urte! Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Bernat, Lur eta Naiken partez.



Zorionak, **KAYDEN**
Obando Villafaña, 28xan urtetxua beteko dozu eta. Musu bat gurasuen eta famelixaren partez.



AIMAR eta **DANEL.** Zorionak, bikote!!! Eguaztenian urtetxua beteko dozue. Musu potolo bana famelixaren partez, bihotz-bihotzez. Maite zaittuegu.



Zorionak, **MYRIAM** eta **LEIZE!**
Hillaren 30ian 60 eta 2 urte beteko dozuez eta!! Musu haundi bat famelixaren partez!

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Lokal zentrikoa salgai. 25 metro karratu. 688686786.

3.2. Errentan

- Garajea alokagai San Juan kalean. 639643600.
- Lokala alokagai Urkizun. Gazteentzako aproposa. Baimenarekin. 600776887.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko: etxeak, soziedadeak... 602051567.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan umeak zaintzeko. 617804844. Elene.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (erizain laguntzailea) eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. 633101852.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 608401590.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein motako lanak egiteko eta nagusiak gauez zaintzeko. 692808337.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 613215006.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 632642320.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 643085244.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 643766267.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 649623854.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Interna. 639107272.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. Orduka. 613287661.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez eta ospitalean ere. 679912841.

4.2. Langile bila

- Emakumea behar da nagusia zaintzeko. Akreditazioarekin. 646206088.
- Emakumea behar da etxeko zereginak egiteko. Lan kontratua: astelehenetik ostiralera. Autoa eta ziurtagiri sozio-sanitarioa derrigorrezkoak. 688670009.
- Taxi-lizentzia traspasatzen da Elgoibarren, jubilazioarengatik. Enpresa bezeroen-kartera Debabarrenan. 686234718.
- Emakumea behar da nagusia zaindu eta etxeko lanak egiteko, etxean bertan bizitzen (interna). 607540772.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Korrika egiteko zinta salgai. la berria. 671258740.
- Labe txiki elektrikoa (Teka) salgai. la berria. Prezioa adosteko. 671506728. Valentin.
- Jatorrizko Trispace lo-zakua (Serval) salgai. Prezioa adosteko. 631849563. Gorka.

6.2. Eman

- Arrazoi pertsonalak tarteko, katu helduak arduraz adoptatzeko aukera eskaintzen dut. 688852207.

6.4. Bestelakoak

- Elkartea gastronomikoa bazkideen bila. Lokal ederra. Roljokoak, zine kluba...Estaziño. badokelkartea@gmail.com

DEBARENA

Tripontziak

KLUB GASTRONOMIKOA

Erreserbatu zure bisita gidatua eta Tripontziak menua!
 Azaroaren 8tik abenduaren 1era
Menua 35€

urriak 24 - azaroak 14

errigora.eus

Eman bultzada, indartu euskara

Agerreko uzta euskarari puzka

Fisioterapeuta zara? Zuretzak lokal ideala dugu.

Plaza baten ondoan;
hor aitona-amonak
biloben atzetik
ibiltzen dira.



Errekatxu Berri da zure
negozioaren giltza; zatoz.
Lokalak eta **garajeak** salgai,
estreinatzeko prest.



Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

 **Loiola**
Espacios para vivir